

Ibiltzen, ibiltzen



**ITZIAR MORENO
MARTINEZ**
EUSKAL PERTSONA
POLIFAZETIKOA

Moreno, baje a notificaciones!". Beherantza noa, azkar ibiltzen, urdaila korapilatuta. Paper mordoa luzatzen didate: "Firme aquí". "Zer da?", mesfidati. "Se decreta libertad inmediata" ("Berehalako askatasuna dekretatzen da"). Ffffsst...! Burmuinetik oinetara husten naiz, kolpe batez erortzen den treskaren ura legez. Holaxe, deblauki: barrutik kanpora irrist, tripek, odolak eta hezurrek.

Lipar hartatik aurrera, oroitzapenen argazki-sekuentzia azkar bat baino ez, bizitzak abiadura hartzen duen lekuko. Puskak jaso, ziega garbitu. Aurrena, moduluko neskak agurtu: "Aupa neskak, animo, gora emakumeon arteko elkartasuna, kartzelak apurtu!". Hurrena, kideak agurtu... ai. Ni oinez eta eurak denak han, batzuk zain eta besteak bidean. Glups. Hamar, hoge, berrogei besarkada sentitu; hamar, hoge, berrogei irri grinatsu; laurogei oihu indartsu, eta nik ezin eutsi laurogei malko horiei.

Nola atera kalera horma artean 33 urte bete dituen barruan utzita? Oraindik ere zigor baldintzetan dauden horiek guztiak utzita? Esan nahi baita, Euskal Herrian egonagatik, kartzelak ez direla inolaz bidezkoago; "kartzela bidezkoa" ezinezko oximorona izango delako egun eta eguzki. Gatibuarentzat beti izango baita lurralde arrotza zigor eremua. Kontraesankorra ere, akaso, oraindik

puskatan den gatazkaren errepidean alde bakarra berrosatzen tematzea.

Agur hunkitu hartan, aldiz, denen begietan ikus nezakeen bakarra maitasuna zen eta, ororen gainetik, kartzela urteen gaineko duintasuna, iraultzaren lortzea, elkarren harrotasuna. Luzaz giltzaketuak, neholaz ere garaituak. Geroztik, bakoitzaren zati bat daramat soinean; ez da zama astuna, ordea, harrotasunegalarazten nauen borrokaren oinordetza baizik. Bada, orain, ordeko oin horiekin ibiltzen dihardut, pausoz pauso, iragana etorkizun bilakatzeko nahi eta saiatze horretan, ibiltzen.

Kilometro bat oinez, ibiltzen, ibiltzen, kilometro bat oinez, zapatak puskatzen. Kilometro soil bat eta: zelan topatu duzu herria? Zelako aldaketa, dena aldatu da, ezta? Ohiturak ez dira lehengoak, militantzia moduak are gutxiago, egiaztatu duzu jadanik? Bon, aizue, badakizue zer? Noski garaiak eta moduak aldatu direla, baina... dabilen harriari goroldiorik ez! Borroka dela etengabe ibili beharreko bidea, alegia. Hainbat zapatekin eta baita oinutsik ere ibili izan dugun bide berean aurrera jarraituko dugu, bai horixe; maparekin edo gabe, euritako bakarrarekin estali barik, norabideak beti bezain argia izaten jarraitzen duelako: askatasuna.

Bada, ibiltzen, ibiltzen, jarrai dezagun herria elkarrekin egiten. ●

Grebara!



ARANTZA GUTIERREZ
EHU-KO IRAKASLEA

Martxoaren 8an Euskal Herriko Mugimendu Feministak zaintza sistema publikoaren aldeko greba bat iragarri zuen udazkenerako, zaintzak ezin baitu negozioa izaten jarraitu. Orain, kalez kale, auzoetan, herrietan, artikulatu behar da greba horretan burutuko den mugimendua. Greba-deialdia, gainera, borroka eguna dena jaiegun bihurtzeko proposamenari (eta aurreko greba feministak esanahiez husteko nahiari) erantzuna da.

Feministok frogatuta dugu irabazitako eskubideek ez dutela betiko irauten, behin eta berriro erasotzen dituztela, eta arriskuan egon daitezkeela defenda-

tzen ez baditugu. Osasunerako eskubide unibertuala omen zena kolokan dago; ezin da onartu ematen ari den osasun-sistemaren pribatizazioa, publikoa suntsitzen den bitartean. Aldi berean, kaleko tentsioa eragiten ari da pentsio-sistemaren mantentzea, eta erretiroa izateko adina atzeratzen eta baldintzak gogortzen dira bitartean, gazteen lanerako sarbidea oztopatzen eta berandutzen. Eta adineko pertsonen zaintza esku pribatueta uzten ari dira, askotan oso lan-egoera prekarizatuan dauden emakumeen bizkarrean zamatuta, gainera.

Beraz, bizitza erdigunean, badaude grebara joateko nahikoa arrazoi. ●